

# Karrantza basatia



**AHOZTAR ZELAIETA**  
KAZETARIA

**K**arrantzako Minda enpresaren porrotagatik Bizkaiko Probintzia Auzitegiak 2018. urtean ezarritako zigorrak berretsi ditu Espainiako Auzitegi Gorenak pasa den urtarrilean. Espainiako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak 13,5 milioi euroko diru-laguntzak eman zizkioten proiektuari; horietatik hamar pasatxo, obrak hasi aurretik.

Karrantzako Mindaren fardela bere gain hartu behar izan zuen herriko alkate ohi batek, 2018. urtean zendua, etsipenak jota bertoko batzuek diotenez. Zigortuen artean gobernuko goi-kargu izandako bat ere bada, Martin Ascacibar, orain Altuna y Uria enpresaren interesak defendatzen dituen Zubietako erraus-tegian. EAJko alkatearen kontrako 2012. urteko zentsura moziara jauntxo batzuk hurbildu ziren, Andoni Ortuzar eta Juan Mari Aburto. Agerraldi hura basoa ez ikusteko aurrean landatutako zuhaitza baino ez zen.

Haraneko abeltegietatik ateratzen den gehiegizko mindari irtenbide bat emateko proposatu zuten abeltzainek planta egitea 2000. urtean. Karrantzako

EAJko alkatearen  
kontrako 2012. urteko  
zentsura moziara  
jauntxo batzuk hurbildu  
ziren, Andoni Ortuzar  
eta Juan Mari Aburto.  
Agerraldi hura basoa  
ez ikusteko aurrean  
landatutako zuhaitza  
baino ez zen

Minda izeneko enpresa sortu zen eta Ade Biotec SM kontratatu obrak zuzentzeko. Ade Biotec enpresako administrazio kontseiluan EAJren konfiantzazko bi abokatu esertzen ziren: Xabier Aguriانو (Bidegi aferari lotua) eta Guillermo Ibarrodo (Alonsotegiko *Liburu Beltzan* aipatua).

Obrak egiteko Asier Atutxa burukide ohiak sortutako bi enpresa kontratatu zi-

tuzten, Ingeplan eta Arkigest, azken hori Bakioko alkate ohi baten ustelkeriaren kontrako salaketan aipatua. Mindaren plantaren eraikuntzan ere aritutakoa da Viuda de Sainz taldea, hain zuzen talde horretako enpresa baten zuzendari izendatu zuten ordurarte EAJren diruzain izandakoa, Xabier Sagredo. Obretan murgildu zen baita Urazca taldea, EAJko alkate ohi batek sortua eta gainera talde horretako enpresa baten kudeatzaile ohi gaur Bizkai Buru Batzarreko burukidea da, Humberto Perea. Urazcaren izena PPko diruzain ohiaren paperetan (Bárceñas-en paperak) eta EAJko burukide ohien ustelkeria kasu batean aurkituko dugu, De Miguel auzian.

Karrantzako Mindari buruz Kontu Auzitegiak egindako txostenean Uría Menéndez taldearen jokaera agerian jarri zen, abokatu talde horretan lanean ari da Javier Balza, Segurtasun sailburu ohi. Txostenak Eptisa ere aipatzen zuen, enpresa horren lehendakari izendatu zuten Bizkaiko Ahaldu Nagusi izandakoa, Josu Bergara. Eta oraindik, hamaika ikusteko jaiok gara Karrantzako Far Westean. ●

ARGIA *Azoka*

Artikulu hauek erosita ekarpen ekonomikoa egingo diozu Bilboko Mbolo Moye Doole elkarteari. Atera aldarria kalera euskaraz eta wolofez!

**azoka.argia.eus**

**943 37 15 45**

Bidalketa gastuak: 4 € 40 €-tik gorako erosketetan, bidalketa doan.

